

[Zumaia](#)[Eskatu zeure hedabidea hemen jartzeko](#)[Blogariak](#)[Amatiño](#)[Joxe Aranzabal](#)[Argiako blogariak](#)[Berriako blogariak](#)[Jozulin](#)[Lander Arretxea](#)[Patxi Gaztelumendi](#)[Maria Gonzalez Gorosarri](#)[Markos Zapiain](#)[Mikel Iturria](#)[Gorka Julio](#)[alter eta ego](#)[Klig](#)[Eskatu zeure bloga hemen jartzeko](#)[Izena eman](#)[Pasahitza berreskuratu](#)

Donostiako II. Sagardo Azoka, ate joka

2013-08-09 @ 09:39 [GAZE](#)

Bihartik aurrera, Donostiako Aste Nagusiarekin bat eginez (**abuztuaren 10etik 17ra**), Euskal Herriko Sagardo Mahaia sagardogileen elkarteak -GORENAK zigiluaren sustatzaile denak- antolatutako **II. Sagardo Azoka** izango dugu **Katalunia Plazan** (Grosen). Azoka, **eguerdiko 12:00etatik¹ gauerdiko 00:00etara** egongo da, egunero, zabalik, eta bilgune polita izan liteke jai giroan murgildu, gastronomiaz eta zuzeneko ikuskizunez gozatu eta sagardoaren kulturaren barneratzeko.

Milaka pertsona gerturatu ziren, iaz, Donostiako I. Sagardo Azokara. Eta antolatzaileak, oro har, gustura ziren, bisitari kopuruak, egunez egun, gora egiten zuela ikusita. “Giro polita sortu zen, eta ahoz ahokoak funtzionatu zuen”, diote. “Asko izan ziren, eguraldia lagun, plana errepikatu eta Azokan birritan edo hirutan afaldu zutenak”. Lehengo urteko ekimenaren arrakasta ikusita, aurten ere Katalunia Plazara itzultzea erabaki dute, ordutegi zabalagoa (12:00-00:00) eskainiz, gainera.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala abuztuaren 11n, igandean, egingo da (19:00etan). Aurpegi ezagun ugari topatuko dituzue bertan, eta Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak ere ez du hutsik egingo. Zuek ere gonbidatuta zaudete, noski!





Iazko Azokan, jai giro polita izan genuen

Eskaintza gastronomikoari dagokionez, bi gune bereiziko dira (zutik edo eserita afaltzeko mahaiak), eta pintxoak, razioak eta postrea egongo dira aukeran, sagardotegi onenetan bezala. Egarria asetzeko, berriz, muztioa eta sagardoa; azken hau, txotxetik zein botilatik: 4 sagardo upel jarriko dira, eta punta-puntako 13 sagardo ezberdin (botilatik) dastatzeko modua egongo da. “Sagardoen euskal selekzioa” honako sagardotegi hauek osatzen dute: Andoaingo Gaztañaga; Asteasuko Sarasola; Astigarragako Alorrene, Gurutzeta eta Zapiain; Donostiako Barkaiztegi eta Gartziategi; Errenteriako Egi-Luze; Hernaniko Altzueta, Olaizola eta Zelaia; Ikaztegieta Begiristain; eta Tolosako Isastegi. Esan gabe doa, sukaldean ere, profesional bikainak ariko direla.

Sagardogile horiek guztiak, elkarrekin, talde-lanean, aritu ziren, iaz, Donostiako Aste Nagusian. Guztiek elkarrekin egin zuten arraun; gogotsu, ilusioz. Indarrak batu zituzten, eta pauso garrantzitsua izan zen hori. Sagardoaren historian ez omen zen sekula horrelakorik gertatu, eta hortaz, Donostiako I. Sagardo Azoka hura mugarria izan zela uste dugu.

Bestalde, agertoki bat ere izango da karpan, eta beraz, jan-edanaz gain, **zuzeneko emanaldiez** gozatzeko parada izango dute Katalunia Plazara bertaratzen direnek. Bigarren edizio honetan, musika egitaraua indartu egin dugu, gainera, eta Iban Nikolai didgeridoo-jotzailea, Arkaitz Miner eta Juan Arriola biolin-jotzaileak, Dasta Musik taldearen doinu eklektikoak, edota Maider eta Ixiar trikitilari bikotea izango ditugu, besteak beste, gure artean (ikus egitaraua). Txalapartak eta kirikoketak ere izango dute beren txokoa. Eta “Artista berrien gaua” delakoa ere sortu dugu...

ZUZENeko IKUSKIZUNAK, EGITARAUA 2013

Abuztuak 10, larunbata	Abuztuak 11, igandea	Abuztuak 12, astelehena	Abuztuak 13, asteartea	Abuztuak 14, asteazkena	Abuztuak 15, osteguna	Abuztuak 16, ostirala	Abuztuak 17, larunbata
	18:00 (Katalunia Plazan) Txalaparta eta kirikoketa. SIMON GOIKOETXEA, ARITZ GOIKOETXEA & AGURTZANE IRIZAR 19:00 Inaugurazio ekitaldi ofiziala						18:00 (Katalunia Plazan) Txalaparta eta kirikoketa. SIMON GOIKOETXEA, ARITZ GOIKOETXEA, AGURTZANE IRIZAR & ISMENE TAPIA
19:30 (Katalunia Plazako karpan) IBAN NIKOLAI (didgeridoo)	19:30 (Katalunia Plazako karpan) ARKAITZ MINER (biolina, biola, ahotsa eta zapateatua) & JUAN ARRIOLA (biolina eta ahotsa).	19:30 (Katalunia Plazako karpan) URKO MENAIA, bakarka (ahotsa eta gitarra)	19:30 (Katalunia Plazako karpan) XABI ABURRUZAGA (trikitixa eta ahotsa), AITOR ANTRUEJO (gitarra akustikoa) & JOSE	19:30 (Katalunia Plazako karpan) DASTA MUSIK: PAUL SAN MARTIN (teklatua), ORIOL FLORES (bateria) & DAVID RUIZ (kontrabaxua)	19:30 (Katalunia Plazako karpan) MAIDER & IXIAR, trikiti bikotea: MAIDER LABAKA (soinu txikia eta ahotsa) & IXIAR ETXARTE	19:30 (Katalunia Plazako karpan) Artista berrien gaua: ANDREA & NEREA	19:30 (Katalunia Plazako karpan) IÑAKI LABAKA (ahotsa eta gitarra)

	Musikari gonbidatua: GARI OTAMENDI (biolina eta ahotsa)		URKEJOLA (flauta, frame drum, panderoa, teklatura, EWI)		(panderoa, gitarra eta ahotsa)		
--	--	--	---	--	--------------------------------------	--	--

Nobedade nagusiak

Nobedade nagusien artean, honakoak aipa genitzake:

-Iazko ekimenaren arrakasta ikusita, **ordutegia zabaltzea** erabaki dugu. Donostiako Sagardo Azokak 12:00etatik 00:00etara zabalduko ditu, egunero, bere atearak.

-Aurrez esan bezala, 2 gune bereiziko dira Azokan. Eguerditan, ez da eserita bazkaltzeko aukerarik egongo; txorizo, odolki edota bakailao tortilla mokadu bat dastatu edota sagardoz zintzurak bustitzeko aukera izango da, ordea. Bestalde, **bazkari tematikoak** antolatzekeo parada eskainiko du, aurren, Sagardo Azokak. Errugbi, xake edota dantza talde bateko kide zarela, Aste Nagusian elkarteko bazkaria antolatu nahi duzuela, eta ez dakizuela nora jo? jesnal@sagardomahaia.com helbidera e-mail bat idatzi eta erreserba egiteko aukera eskaintzen dizu, aurren, Donostiako Sagardo Azokak. Baldintza bakarria bete beharko da: bazkaltzarren gutxieneko kopurua 40-50 lagunekoa izatea.

-Horrez gain, eta eskaintza gastronomikoari dagokionez, beste **sorpresatxoren bat** izango da...

-**Zuzeneko ikuskizunak**: Bigarren edizio honetan, Azokako musika egitaraua indartu egin dugu.

-**Karpa handiagoa**: Azokako karparen tamaina ere apurtxo bat aldatu dugu (18 x 37 m ditu aurtengo karpak), auzotarren zein kanpotik datozenen erosotasuna bilatuz, betiere. Katalunia Plazako karpan, 150 lagunek izango dute esertzeko tokia, eta beste hainbeste izango dira, zutik, pintxoak dastatu ahal izango dituztenak.

-Kalitatezko lehengaiak erabili eta bezeroari zerbitzu ona eskaintzeaz gain, iaz bezala, **Azoka dotorea** -"gorena"- antolatzea da gure asmoa: portzelanazko baxera, kristalezko edalontziak, etab.

Biztanleriaren gehiengoak, sagardoa txotx garaian soilik edateko ohitura du. Litekeena da, dastatzerik onenak urtarila eta apirila bitartean egiten direnak izatea, baina **gure helburua**, botilan ere produktu duina eskaintzea da; sagardoa urte osoan zehar edan daitekeela erakustea, alegia.

Txotx denboralditik kanpo ere... etorri eta gozatu!

1 Oharra: Abuztuaren 10ean, larunbatean, Azokako ordutegia honakoa izango da: 19:00-00:00.

6 0 Datsegizu?

Antzeko beste sarrera batzuk:

[Hiriburuetako jaien kartelak \(2013\)](#)

Tweet 2 0 Like 1 Send

Iruzkinak (Iruzkinik ez)

Idatzi hemen zure iruzkina

Zure helbide elektronikoa ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena*

Helbide elektronikoa*